

Berbarotarra

2025eko abendua · 83.zk



Esnatu ala hil

Solasaldia hasteko bost minutu falta zirenerako, beteta zeuden eserleku guztiak, *“Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa, diagnostiko baten argitan”* liburuaren aurkezpenarako. Atzerapenarekin hasi zen aurkezpena, bertaratutako guztiei lekua egiteko liburutegiko beste txokoetatik aulkiak eraman behar izan baitziren.

Iñaki Lurrebaso etorri ezin izan zen arren, Garikoitz Goikoetxeak argi eta zorrotz azaldu zituen euskararen iragana, oraina eta geroaren inguruko datu soziolinguistiko nagusiak. Euskararen bilakaera historiko modernoak hiru aro dituela esplikatzuz hasi zuen hitzaldia kazetariak: *“XX. mende hasieratik 1970. urtera arte, ordezkapenaren aroa, zeinetan ezagutzen eta erabileran ikaragarri egin zen atzera; 1970eko hamarkadatik XXI. mendeko lehenengo hamarkadara arte, indarberritzearen aroa, bulkada euskaltzaleak ordezkapena gelditu eta goranzko joera hartu zuenean; eta, azkenik, azken 20 urteetako geldialdia, datu gehienetan aurrerapausoak eten diren sasoia.”*

Lehenengo ordu laurdena igaro zenerako, bero handia zegoen txiki gelditu zen gelan. Halere, horrek ez zuen eragotzi ikusleek azalpenak adi-adi jarraitzea. Solasaldiaren erdira heldu orduko, eta hainbat datu soziolinguistiko azaldu ostean, tesi nagusietako bat zehetu zuen soziolinguista gipuzkoarrak: *“euskararen arazoa*

erabileran dagoela esan ohi izan da sarri, baina gure iritziz, hori ez da zuzena: euskararen ahuldade nagusia gaitasunean dago; gaitasuna zenbatekoa den ikusita, erabilera handia da; azkenik, indargune nagusia atxikimenduarena da.” Beste hitz batzuetan, euskararen ezagutzak gora egin duen arren, euskaldun gehienek errazago egiten dute erdaraz. Halaber, erdaraz derrigorrez hitz egin beharreko une eta guneen nagusitasuna hain handia izateak, asko mugatzen du euskaraz mintzatzeko aukera. Horrela borobildu zuen Goikoetxeak: *“gaur egungo egiturekin, euskalduntzea baino indartsuagoa da erdalduntzea Euskal Herrian.”*

“Norantz goaz?” galderarekin ekin zion aurkezpenaren azken atalari. Bada, prospekzioa larria da oso: *“espazio gehiago irabazteari utzi, eta belaunaldi berrietan zein arnasguneetan atzera egingo dugu.”* Horren aurrean, bertaratutako 60 euskaltzaleei hausnarketa baterako gonbitea egin zien: *“1960ko hamarkadan, euskararen etorkizunaren inguruko proiektzioa egingo balitz, zein izango litzateke 2025erako emaitza? Ziurrenik, desagertpena. Eta hemen gaude. Garai hartan baino hobeto, gainera.”* Sasoi hartan Euskal Herrian sortu zen nazio susperralditik ikasi, eta gaur egungo baldintzetara egokituko den olatua altxatzeko deia egin zuen Goikoetxeak. Norabide horretan ekiteko gogoz irten ginen berbarotarrok bibliotekatik.



Saguganbara arrakastatsua Azokaren 60. edizio honetan

90eko hamarkadatik antolatzen ditu Berbarok Durangoko Azokan ume eta gaztetxoentzako ekintzak, eta ibilbide horren emaitza da Saguganbara. Gaur egun, Azokako egunetan nahi-taezko geldialdi bihurtu da pertsona askorentzat.

Aurten ere, abenduaren 5etik 8ra bitartean, Saguganbarak bere eginkizuna bete du .eta berriro programazio zabala eskaini du, euskal sortzaile askoren ahots eta lanak biltzen di-tuena. Urtero bezala, askotariko eskaintza izan dugu: ipuin kontaketak, zuzeneko musika, tailerrak, ikuskizunak eta hainbat liburu aurkezpen.

Durangoko Azokaren 60. edizio honetan 24 ekitaldi baino gehiago antolatu dira, eta horien artean hauek nabarmendu dira: Eñaut Aiertzaguenaren Ikasle goizeko *Komiki Tailerra*; Go-tzone Butrón eta Aitziber Rayaren *Orkestra Zoragarria* (Ettxepare Saria); Potx, Lotx, Izaskun eta Xabi Sounden *Lagunekin Topa* diskoaren aurkezpena, ume zein nagusiak dantzan jarri dituen; eta Amaia Egidazu Arruberen *Txirriki-Txarrik* ipuinaren aurkezpena.

Aurten ere, Saguganbarak euskaraz bizitzeko, sortzaileak ezagutzeko eta euskal kulturari murgiltzeko aukera paregabea eskaini die belaunaldi berriei.

Gaba Baltza Durangon: kaleak tradizioz betez

Azken bi urteetan bezala, aurten ere, urriaren 31n Gaba Baltza ospatu dugu Durangoko ka-leetan. Herriko hainbat elkarteren lagun-tzarekin sorturiko eguna da hau. Oraingo honetan, Karrika Antzerki Taldeak Kriskitin Dantza Taldearekin batera antzerkia egin du; Jaizalek kalejira girotu du; eta eskolek lanketa berezia egin dute umeekin. Hurrengo urteei begi-ra, elkarte gehiagok parte hartzea da asmoa. Musika Eskolak, esaterako, egunean bertan kontzertutxoa emateko prestasuna erakutsi du; Geu Be elkarteak egunaren antolaketan lagunduko du... Horrez gain, aurten Alde Zaharreko komertzioetatik ere pasatu gara Gaba Baltzeko lanketa egitera, zer den azaldu eta nola eragin dezaketen erakustera, hain zuzen.



Domekak Olgetan: jolasa, sormena eta tailerrak

Orain arte egin ditugun Olgetan tailerrek arrakasta handia izan dute. 8-11 urte bitarteko umeentzat hilean behin, igandeetan, tailerrak eskaini izan ditugu, gehienetan eskulanak edo Durangaldeko sortzai-leekin egindako saioak. Baina badakigu denei ez zaizkiela eskulanak egitea gustatzen, beraz, proiektuari buelta bat ematea erabaki dugu. Hemendik aurrera egitasmoa Domekak Olgetan izango da.

Ikasturte hasieran ate irekien jardunaldiak egin genituen gazte-txoek interesak ezagu-tzeko. Jasotako iritzietatik abiatuta, orain, irteerak, jolasak, dinamikak, tailerrak eta bestelako jarduerak eskai-niko ditugu hilean behin.

Gainera, izen-emate sistema berri du: plazak ez dira hurrenke-raz beteko, hau da, Durangoko ikastetxe ezberdinetako gaztetxoek elkar ezagutzeko aukera izan dezaten, parte-hartzaileak zozketa bi-dez aukeratuko dira.

Kattalin, euskara dinamizatzaile berria

Kattalin Velez de Mendizabal Arteaga. UDALEKO EUSKARA DINAMIZATZAILEA



Berbaro Elkartea ezagutuko zenuen lehendik ere, kanpotik hartu izan diozun itxura eta lanean hasi zarenean ikusi duzuna bat datoz? Zer azpimarratuko zenuke Berbarori buruz?

Aurretik ere ezagutzen nuen Berbaro. Durangon arnas luzeko elkartea da; eta txikia naizenetik hartu izan dut parte elkarrekin antolatu dituen ekimenetan Bereziki gustukoak ditut irakurzaletasuna sustatzearekin harremana duten horiek. Beraz, barrutik ezagutu aurretik ere gertuko sentitzen nuen Berbaro, herritarrekiko hurbiltasuna bereizgarritzat du, eta haiek bere jardunaren erdigunean jartzen ditu. Azpimarratzekotan, lantaldean dagoen giroa nabarmenduko nuke: lankideak oso jatorrak dira, eta bulegoan oso giro ona dago; lehen unetik sentitu naiz ongi etorria.

Durangarra izanda nola ikusten duzu herriko euskararen egoera? Zein iritzi duzu horri buruz, eta zer uste duzu behar duela Durangok euskaldunago izateko?

Urteak aurrera egin ahala, euskararen erabilera neurri batean egonkor mantendu dela uste dudana arren, argi dago oraindik erronka handiak ditugula hizkuntza-praktikak sustatzeko. Orokorrean, herrian, euskararekiko jarrerak positiboak direla esango nuke, eta generazio gazteen artean hizkuntza bultzatzeko grina eta interesa ere nabarmena da. Oraindik lana geratzen den arren, aukera handiak daude euskararen erabilera indartzeko.

Urritik zaude gurekin lanean Udalerako euskara dinamizatzaile lanetan. Zelakoa izan da hasiera? Martxa hartuko zenuen honezkero, ez?

Urri amaieran sartu nintzen, eta geroztik, martxa hartzen joan naiz, astiro-astiro. Dinamizatzaile lanetan hasteko une egokian heldu naizela uste dut; izan ere, urteko zeregin nagusiak lotuta zeuden ni iritsi nintzenerako, eta horrek aukera eman dit egokitze-tarteak lasaitasunez hartzeko. Hemendik urte amaierara bitartean, gainera, nire gustuko proiektuetan aritzeko aukera izango

dut: batetik, Euskararen Egunerako egitasmoa antolatzea; eta, bestetik, Durangoko Azokan, Udalak Arte eta Historia Museorekin elkarlanean jartzen duen standa prestatzea.

Lehenago ere antzeko lanetan ibilitakoa zara, ezta? Errazagoa izan da erritmoa hartzea edo ez dute zerikusirik lehengoak eta oraingoak?

Nire aurreko lanpostuarekin harreman handia du oraingoak. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean jardun nuen lehengo euskara teknikari gisa, eta han egin ohi nituen eginkizunek badute antzik oraingoekin; baina, egia da, eskualdea ez nuela Durango bezain ondo ezagutzen. Herrian bertan lan egitea eta bertako dinamika hurbiletik ezagutzeak erraztasun handia izan dira eguneroko lanean.

Zure ardurapean dituzun proiektu eta lan-ildoetatik zein nabarmenduko zenuke? Gustukoen duzulako, uste duzulako ekarpen handia egin dezakezula, motibazioagatik...

Orain arte bisitari lez soilik ezagutu dut Durangoko Azoka. Aurten, ordea, lehen aipatu bezala, Durangoko Udalak duen standaren kudeaketa lanetan parte hartzeko aukera izan dut. Esperientzia oso berezia izan da: urteko momentu gogokoenetako bat da azoka niretzat, herrian giro berezia sortzen baita eta Euskal Herriko kultur eskaintza anitza bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen duelako. Antolakuntzan nire aletxoak jar-teak ilusio berezia egin dit.

Berbarok berdintasun plana dauka lehenengoz

Aurten, Berbaro elkarrekin urrats garrantzitsua eman du, Berdintasun Plana sortu baitugu lehen aldiz. Legez ez gaude horretara behartuta, baina argi daukagu gure jardunean eta eguneroko dinamikan berdintasuna sustatzea ezinbestekoa dela. Horregatik, hausnarketa sakon baten ostean eta partaide askoren ekarpenak jasota, 2025etik 2028ra bitarteko plana osatu dugu.

Plan honek helburu bat du: gure elkartearen emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko urrats zehatzak ezartzea,

bai barne antolaketan, bai kanpo jardueretan. Hainbat arlotan eragin nahi dugu, hala nola parte-hartze eta erabaki espazioetan, komunikazioan, baita formakuntzan ere.

Datozen lau urteetarako hainbat ekintza zehatz planteatu ditugu. Besteak beste, Berdintasun taldea eratzea (honen lana urte osoan zehar planaren jarraipena egitea izango da); erasoan aurkako protokoloa sortzea; komunikazioan hizkera inklusiboa erabiltzeko pausoak ezartzea; langile guztientzat formakuntza saioak eta taile-

rrak eskaintzea; eta elkartearen espazio eta ekintzetan genero ikuspegia txertatzeko irizpideak ezartzea.

Plan hau ez da txosten hutsa, benetan betetzeko konpromisoa hartu dugu. Horregatik, urteko ebaluazioak eta beharren arabera egokitzapenak egingo dira.

Aurrerapauso hau elkarte osoaren-tzako aberasgarria izango dela uste dugu, bai langileentzat, bai bazkideentzat, baita gure erabiltzaile diren ume, gazte eta helduentzat ere.

Agenda DATOZENAK

NEGUKO TAILERRAK

ABENDUAREN 23tik
URTARRILAREN 5era

Neguko tailerrak
Prezioa 10€ tailer bakoitzeko
2019-2014 urte artean jaiotakoentzat

Ordua	Tailerra	Prezioa
10:00 - 12:00	IZOTZ PISTARA IRTEERA	23
10:00 - 12:00	PSIKELA TAILERRA	29
10:00 - 12:00	SUKALDARIETZA TAILERRA	2
10:00 - 12:00	ESKULTURA TAILERRA	5

EUSKARAZ BIZITZEKO

PIZKUNDEA

Ametz Aranguren · Anari · Ane Labaka Benizze · Edurne Azkarate · Flako Fonki Gontzal Mendibil · Gorka Urbizu Itziar Ituno · Joseba Tapia · Maia Irizarne Mejillon Tigre · Miren Gaztañaga · Miren Narbaiza Olaia Aguayo · Ramon Agirre · Sustrai Colina ... eta gehiago

Sarrerak: pizkundea.eus

ABENDUAK 27

Ekitaldia: Pizkundea euskaraz bizitzeko

Bilbao Arena · 17:00

Abenduak 30 - 20:00 San Agustin

Sareak Berberekin
Laguntzaileak
Gai-jartzaileak

Aitor Bizkarra Ruiz
Maialen Lujanbio Zugasti
Nerea Ibarzabal Salegi
Unai Iturriaga Zugaza-Artaza
Andoni Egaña Makatzaga
Alaia Martin Etxebeste

Gai-jartzaileak: Leire Vargas Nieto

ABENDUAK 30

Urteko azken bertso saioa

San Agustin Kultur gunea
20:00

Hiru laguneko taldeetan parte hartzea behar da hau. Taldeetako lehiaketetan berriz, hainbat meteko galdarak erantzun behar dira. Sari eder bat ageriko da jekoen. Eman izena kartelako QRan eta zake!

HIRUKOA

OTSAILAK 06

Hirukoa VII. edizioa

Plateruena · 19:30

Udaleku euskaldun eta feministak indartzeko unea



Uda amaitzen ari zen sasoiaren bihurtu ziren udalekuak berba; edo, hobeto esanda, komunikabide zehatz batzuek bihurrazai zituzten hizketagai. Kezka handiz ikusi genituen sare sozialetan eta komunikabideetan zabaldu ziren mezu eta erasoak; horien aurrean gure babesa eta elkartzuna adierazi genien Euskal Udalekuek hezitzaileei. Badakigu heziketa esparruan ikuspegi eta balore ezberdinek talka egin dezaketela, baina hori bideratzeko modua errespetua eta elkarrizketa izan behar dira, ezinbestean.

Euskal Herrian hamarnaka elkarte antolatzen ditugu udaleku euskaldun eta feministak, udalekuen balio hezitzaile eta eraldatzaileen sinetsita. Haur eta gazteen zaintza erdigunean jarrita, hezitzaile kualifikatuekin eta eredu pedagogiko sendoarekin. Euskal Udalekuek noranzko horretan jarduten dute, eta hori aitortu nahi diegu.

Komunikabideetako zalaparta isildu da, eta oraindik hurrengo urteko udalekuak urrun daude; halere, une egokia izan daiteke hausnarketa sakonagoa egiteko. Horrenbestez, egoera baliatu nahi dugu aisialdi hezitzaileak jendartean balio eta aitortza baxuegia duela adierazteko, funtsezkoa baita haur eta gazteen heziketan. Berbarok eredu euskaldun eta feministaren hautua berresten du, Durangaldeko ehundaka haur eta gazte kalitatezko aisialdia izaten jarraitzeko.

Ez gara eredu feminista eta euskaldunaren aurkako kriminalizazioa salatzearekin konformatuko. Haur eta gazteen heziketan aisialdi hezitzaileak behar besteko lekua izatea aldarrikatzen dugu; horretarako, ezinbestean, denon erronka izango da erakundeen, herritarren eta eragileen inplikazioa handitzea.

Laguntzailea:

